


— IRYDIMEÑEKO ASKE —

LEZO KONPUTAGAILUEN HERRIA

Nolabait albiste erabat harrigarria jaso dugu ASKEkoek. Administrazioak sekretu guztian gorde nahi izan duen proiektu ezkutua eta guztiz renobatzailea.

Lehengo urteko udaran, turista itxuraren azpian japoniar antzeko zenbait indibiduo ikus ahal izan genuen gure herrian. Ez da arraroa ere, portua hain gertu izanik, atzerritarrak maiz ikustea Lezon. Japoniar pintako pertsona hauek lehen Acha-koak ziren terrenoak begiratzeko egon ziren. Lagur baten bitartez jakin izan genuen Lintzirin-go hotelean gelak hartu zituztela eta, egunen batetan, Aizpean bazkaltzen egon zirela.

Hauetako egun batetan gobernuko ministro baten idazkaria egon zen japoniarrekin bazkaltzen. JOKIN ARRIETA Legazpiako gure lagunak bazkari horretan interprete bezala jardun zuen, eta honi esker dakigu Lezon japoniar kapitalarekin erai-kiko den konputagailuen enpresaren berri.





Ondoren, aipaturiko ministroaren ekipoak eta Japon-go ordezkariak mantendu zuten elkarriketaren zenbait berri emango dizuegu.

TEKITO MISPIRA & MOKITO SHANO teknologi berriaren enpresa japoniarrak 100 miloi dolarreko inbertsio bat egiteko prest dago Lezoko herrian. Beren asmoa: gure herrian TEKON FX-4 superkonputagailuen fabrika martxan jartzea. Konputagailu hau Japoniar teknologiaren azkeneko asmakizuna da, eta modelu hori produzitzeko lantegiarentzat leku egokiena Markesane azpiko terrenoak dira.

Ingurunea, Misukito Shen ordezkari japoniarrarentzat, egoki-agoa ezin da izan. Komunikabideak ezin hobeak dira: trenbidea alde batetik, portua bestetik, eta Hondarribiako aireportua Lezotik kilometro

gutxitara.

Imajinatu ezina da proiektu honen potentzial ekonomikoak komunikabide horietan, eta zer esanik ez Lezoko herrian eta bere inguruan, sortuko lukeen aldaketa ikaragarria. Inpakto ekologikoa, eta teknologikoa zer esanik ez, izugarria izango zen.



Badirudi

Udaletxeak, nahiz eta ondo jakin jendea terreno horietan polikiroldegi bat erai-kiko den itxaropenean dagoela, ez duela bi aldiz pentsatu. Lurren konzesiorako paperak mahai gainean daude, sinatu zai.

Japondik

250 langile espezializatu ekartzeko asmoa baldin badago ere, Lezoarrentzat 600 lanpostu fijo egongo ziren.

Aukera ezin hobea famili askoren miseri ekonomikoa erabat akabatzeke.

Baina guzti honek itzalean dagoen galdera bat eguzkitara ateratzen digu. Mesederik egingo al dio honek herriko kulturari? Dirua dagoen lekutan gauz ugari egiteko aukera badagoela dirudi. Baina nolakoa izango zen gure kultura? Kultura teknologikoa? Elektronikoa? Lezo herri bat izango zen, ala tabernetan jolasteko dauden bezalako makina ikaragarri bat?

Albiste hau, gaur egun, hauteskunde munizipalak hain gertu izanik, lehergailu bat da. Zer gertatuko da? Herriak bai al du zer esanik?

Asuntoa hor dago: nahi al du Lezok munduko teknologi aurreratuena dagoen herria izan?

IZAN ALA EZ IZAN... HOR ZEGOK KROSKA...